

HOLANDA'KO

Gobernu berria

Gai asko neuzkan nere baitan uen on-tan komentatzeko: Mosucouko tratatua, Txinaren Errusiarenganako asarrea, De Gaullek adierazi ditunak eta... bañan gai auzetaz naikoa esan dala deritzait eta orregatik beste gai bat erabilliko det: Holandako gobernu berriak.

Elektzioak izan ziran eta katoliku partiduok gertatu ziran ugarienak, beraz, diputaduen artean irutik bat partidu ortakoa da. Lengo illaren azkenean presentatu zan gobernu berria Kamararen aurrean. Gezurra dirudi lengo gobernu zarrakoa danak irabazten atera arren elektzio auetan, gobernu berria osatzeko irurogei ta amar egun bear izatea. Oraingo gobernu berri au koalixio, elkartasan, bat da sozialistak gobernutik kanpora utzita. Izan ere, orregatik pasa dute ainteste denbora gobernuat osatzen.

Holandako katoliku partiduak, Europan diran beste kristau demokraiekin antz asko dauka, nola ez! Partidu oien batasuna nai sustrai indartsuena danen sinismen eta fede berdiñean dago. Danak fede bat alkarturik partidu bat osatzen dute, bañan politikari dagokionez oso pentsamentu ezberdiñekoak alkar-tzen dira; konserbadore bero beroetatik ezker-zale beroenetara arkitzen dira partidu oietan. Orrela gertatzen da Alemaniko C.D.U., C.S.U.'n, Itoliko D.C.'n eta Frantziko M.R.P.'n. Holandako katoliku partiduari ere orixe gertatu zaio, alde batetik partidu ortako ezker aldekoak, batez ere sindikalistak, sozialistak alkartzea nai zuten gobernu berria osatzeko bañan partiduko konserbadoreak etzuten orrelakorik nai. Gañera, sozialistak 1959'garrendik oposizioan egon arren diputadu bat galdu dute oraingo elektzioetan. Orregatik oraingo gobernu au osatzea ez da erreza izandu, ta orregatikaxe jαιο da konserbadore usaiaren. Gobernu onen lendakaria Marijnen da, jakaña, Juliana erregeñaren mendean.

Azkenik Holandaren politikatzaz zerbait esan dezagun. Europari dagokionez Ingalterra Alkartutako Europan sartzeko alegiñ aundienak egiten dituztenak dira Holandakoak, Ingalterrarekin bai komertzioz eta bai istoriz artu-eman aundia daukatelako. Baita ere Europan batasuna nai dute bañan ez De Gaullek nai duan bezela Aberrien Europa

bat, aberrien gainko Europa bat baizik. Nekazaritza gaiak ere garrantzi aundia dute aintzat. Beste aldetik gero ta go-roago ugarigoak dira jaiotzak eta bizi diranak ta naiko lanak dauzkate itxasoari bizitzeko lurra kentzen.

Arregi'tar Rikardo'k

BURU AINBAT ABURU

EZTA...! BAIDA...!

ARETXABALETA

Nora guaz, edo zertan ari gera? — Andra Mari laugarren egunerako Euskal jai edo «Fiesta Vasca» gertatzen ari dira erri ontan. Ainbat orri zabalduak dira baña bere izenik ezdegu ikusi inun euskeraz. Etxerik etxe diru batzen dabil-tzan neskek ere euskaldunak baña etxe euskaldunetan ere Fiesta Vasca gora eta Fiesta Vasca beru, alde guztietatik erderia darixola. Orain aundiagoa; «Autorizar a la comisión pro Fiesta Vasca para que organice dos verbenas en el frontón para gastos de dicha fiesta. Euskal jaiak ere zikinkerki bidez lortu bear ditugu? Ezda naikoa etxetan biltzen dan dirua eta zozketa bidez batzendana? Fiesta Vasca izenakin ez deigun bota euskera eta Euskal erria pikutara.

Muru aldeko bat

«NORK BERE IRITZIA IRAKURRIZ

(Zeruko Argia. Garagarriak 30. 8'garren zenbakia.)

Sakonetik zabiltz, Lukax Dorransoro. Buru-saiamen estimagarria deritzait zurea, egia ta iritzieren zertasunean aztarrika somatu ba'zaitut.

Ba-datoz or, ene ustez, oker dauden zerrenda batzuek. Onela diozu batean: «Gizakiok, beraz, askotan, iritziak ematen ditugu Egiarengandik gertuxeago edo urrutixeago daudeken iritziak».

Gatozen lenbizi «iritziaren» adi-mugara: «Aburu sendo bati ematen zaion baitezkoa, bañan utsegin bildurrarekin». Iritzian, baiespeneak inguruan du utsegin bildurra. Biok batera.

Nik emen, *iritzia ta aburu* sendoa adi berdiñeko ulertzen ditut. Ots, norbaitek ontaz edo artaz zerbait iritzen duanean, aldeko edo aurkako arrazoien indarrenean pidaturik epaitzen du bere baitan. Arrazoiak izan ditezke, sendotasunaren mallan, bortitzak, bortitzagoak, arras bortitzak, bortitzak soillik... Baño beti, ez ahanzi, aburu sendo orren mugapean gabilzkizu.

BAIGORRIN

JEAN HARITSCHELAREN SARRERA EUSKALTZAINDIAN

Jean Haritschelaren sarrera egin da Euskaltzaindian. Uztailaren 28'an, igandean, bildu da Baigorri Euskaltzaindia. An ikusi genitun Lojendio Euskaltzainburua, Mitxelena, Irigarai, Aita Villasantte, Arrue, Aita Akesolo, Bordari, Aita Zabala, Irigoien, Eperre, Lafitte, Arotzarena, Goienetxe, Txillardegui, Dassan-

tze, Lafon, Jauregiberri, Labegerie, Lar-tzabal, Kamino, Satrustegi eta esagutu genitun Errekart senatorra, Baigorriko alkatea dan Minjonnet kolonela, Duny-Pétré euskalari jakintzua, Larrouillet kolonel abokata, Baigorriko erretore jauna, Haritschelaren ama, emazte eta familia, baita beste euskaldun asko Bidasoatik bestaldekoak.

Egun atsegingarria benetan Baigorrikoa. Bizitza guztirako gogoan gelditzen diran egunak dira onelakoak.

Meza nagusia amarratzen. Nere bizitza lendarbuziko aldir ezantzen nuen Bidasoatik bestaldean Meza nagusi bat. Benetan arriturik gelditu nintzan. Denak kantatzen dute: an: neska mutillak, gizonak eta andrak, denak. A zan Meza ederra! Eta zein ederki kantatzen duten, denak bat-batera, bai latinez igandeko ofizioa eta euskeraz kanta ederrak eskeintzeran, Jaunartzeran eta azkenen-go Aingeruaren Agur Mariaetan. Eperre kalonjeak egin zuten predikua, jaiaren berri emanez. Orain urte batzuk dirala, Euskaltzaindian egin zuenean sarrera Pierre Aillanderen aukian jesarritzeko, ez nion gausa aundirik aditu, baña Baigorriko sermoian bai, zer ederki mintzatu zen, astiro eta garbi, gotzain bat zirudien berak. Mitxelena neukan alboan, eta Meza araitzen esan zidan, bere bizitza guztian ezantzen dituen Mezetatik atseginetariko bat zela a. Bai, eta nik ere ori bera esaten det.

Meza ondoren, Euskaltzaindiaren Batzarra, teatroan. Alkate jaunak itz egin eban lendarbuziko. Lojendio Lendakariak irakurri gero araudiak esaten duena. Euskaltzaindiko bi, Lafitte ta Mitxelena, joaten dira Euskaltzain berriaren bila, eta txaloka artzen dute denak. Baxenabarreko euskeraz itz egiten du, Oxoko bi euskal olerkari zanari buruz, berak utzi zuen aukian jesaritzen da-ta. Ederki mintzatu da, bai galez eta bai euzkeraz. Zenbat sermolarik nai ote-luke mintzatzea Haritschelar mintzatzen dan golede egokian. Lafon irakasleak egiten dio erantzuna, Xuberoako euskeraz. Astiro astiro esaten ditu itzak, eta ongi aditu diogu denok. Gero, Euskaltzainburua ematen dio izendatzearen agiria eta Euskaltzaindiko egiten du. Denak txalo ta txalo, eta «*Germikako Arbola*» kantatzen degu, zutik.

Bazkaria gero, ibai-ertzeko jatetxe aundian. Gela aundi-aundi bat, guretzako bakarrik. Euskaltzaindiko denak, agintariak, euskaltzaleak, adiskideak, eta familiarok. Denok anaitasunean, kantuz eta umore onezko. Bordarik eztañri ona ta umore ohea erakusten ditu. Labegeri diputaduak, Arruek, Lojendiok eta Minjonnet alkateak itz egiten dute, eta denok pozik eta txaloka.

Bitaño

ERRANDONEA

Exeko-andre: irauan arazi zure arropoi onokojaboi oneki:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'dezu

ATOMIZADO LAGARTO, — jaboia erabiliñ beti

Eskuz ba'zabiltz, **LAGARTO** — jaboia bear dezu erosi

JABON LAGARTO, garbiketarako jaboia bakarrik!

Exeko-andrearentzat merkamerik egokiena,

JABON LAGARTO

ARANZADI'tar J. M.

ERA GUZTIETAKO SEGUROAK

Barzelona'ko "LA CATALANA",
Seguroetako ordezkaria Gipuzkoan

Bere gain artzen ditu seguro aukerak:
Suak - Ez-bearrak - Besterekiko kalteak - Berebill - Bizi, eta abar.

San Marcial, 33 entlo.

DONOSTIA-N

Urruzkiña 19226